

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: HUHEZI 50. urteurrena

ESPEDIENTEA: 2026TDIR0006

INTERESDUNA: HUHEZI KOOP. ELK. (IFK: F20079497)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 5.000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du HUHEZI KOOP. ELK.-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Hezkuntza teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta HUHEZI KOOP. ELK.-ren (IFK: F20079497) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- HUHEZI KOOP. ELK.-ri 5.000 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa antolatzeko:

- Motxila 21 taldearen emanaldi eta garraioa
- Alderdi teknikoak: soinua eta argiak
- Ekintzaren komunikazio eta hedapena
- Taldearentzako luntx edo merienda

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren bostgarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 5.000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.334.55.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026TDIR0006-Alkate erabakia/Resolución (HUHEZI KOOP. ELK.)